

NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

150 Zenbakia - Data: 16/12/2005

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

**2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK
BURLATA**

Behin betiko onspena Burlatako udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren eranskinari

Burlatako Udalak 2005eko apirilaren 6an egindako osoko bilkuran hasiera batez onetsi zuen Burlatako udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren eranskina, Burlatako Udaleko zein lanpostutan sartzeko jakin behar den euskaraz zehazten duena.

Jendaurreko epea iraganik eta erreklamaziorik izan ez denez gero, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325 eta 326. artikuluei jarraituz, hasierako onspenaren erabakia behin betikoa bilakatu da eta argitara ematen da Nafarroako ALDIZKARI OFIZIAlean, oso-osorik, Burlatako udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren eranskina, Burlatako Udaleko zein lanpostutan sartzeko jakin behar den euskaraz zehazten duena.

Burlatan, 2005eko azaroaren 9an. _Alkatea, José Muñoz Arias.

**BURLATAKO UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA
ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ERANSKINA**

Honako hau dio 13. artikuluan:

"Udalaren plantila organikoan zehaztuko da zer lanpostutan izan behar duten euskaldun haietan aritzen diren funtzionarioek, jendearekin harreman gehiago izateagatik edo administrazio prozedura normalduen katearen barnean duten lekuagatik, ordenantza honen eranskinean prestatuko den proposamenari jarraituz."

"Eranskin horretan azterlan bat jasoko da, zehazteko zein udal esparrutan dagoen, ahoz nahiz idatziz, harreman gehiago herritarrekin; orobat, administrazio prozedura ohikoenak, aipatu esparru edo prozedurei lotutako lanpostuen hizkuntz eskakizunak, herritarrak zerbitzua euskaraz izanen duela bermatzeko zirkuitu elebidunen azterlana eta jarduketa plan bat, non hizkuntz eskakizunak eskuratzeko bitarteko eta baliabideak finkatuko baitira."

Euskaraz jakin beharra Burlatako Udaleko lanpostuetan sartzeko

Lege esparrua

Burlatako udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren 13.

artikuluaz gain, legezko arau hauek osatzen dute proposatutako azterlanaren esparru juridikoa:

_Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, 2.1 artikuluan ezartzen baitu gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntzak direla eta, beraz, herritar guztiek dutela haiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

Foru Lege horrek hiru hizkuntz eremu ezartzen ditu Nafarroan eta hiruetan aitortzen zaie herritarrei administrazio publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea, Foru Legean berean ezarritako eran, eta eskatzen zaie administrazio horiei eremu bakoitzean hainbat neurri har dezatela eskubidea gauzatzeko.

_29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.

1.1 artikuluan dio "Foru Dekretuak garatzen du euskarak Nafarroako Administrazio Publikoetan izanen duen erabilera arrunta eta ofiziala"; eta gero, eremu mistoko helburuak aipatzen ditu: "... herritarren hizkuntz eskubideak gauzatzeko behar diren langileak antolatu eta gaitzea"; 12.2 artikuluan, berriz, "Eremu mistoan zerbitzua ematen duten Nafarroako Administrazio Publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte administrazioarekin euskaraz egin nahi duten herritarrek eskubidea gauzatu dezaten, Foru Dekretuan jaso bezala."

_Erregioetako edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Gutuna, Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak 1992ko ekainaren 25ean hitzarmen gisa hartutakoa, hamaika estatu kidek (Espainia barne) urte bereko azaroaren 5ean sinatua.

10. artikuluan, administrazio agintariei eta zerbitzu publikoei buruzko gomendioak aipatzen dira, besteak beste:

"...jendaurrean dauden agenteek erregioetako edo gutxiengoan hizkuntzak erabil ditzaten zaintzea, hizkuntza horietan mintzatzen zaizkienekin".

"...erregio hizkuntzetako hiztunek (...) eskaerak ahoz edo idatzita aurkeztu eta erantzuna hizkuntza horietan har dezaten zaintzea (...)".

Azterlanaren xedea.

Burlatako Udalaren plantilla organikoa da azterlanaren xedea.

Herritarrei zerbitzua euskaraz emateko hartu beharreko neurriak zehaztu nahi dira; horretarako, aldez aurretik, udal departamentu bakoitzak kanpora begira duen harremana jakin behar dugu, baita une honetan plantillako langileetatik zenbatek jakin eta erabiltzen duten euskara, bai Udalekoek bertakoek bai Udalaren mendeko erakundeetakoek.

Azterlanaren helburuak

1. _Erabakitzea Udalaren plantilla organikoan zein lanpostutan sartzeko eta jarduteko jakin behar den euskaraz.

2._Euskaraz jakitea baldintza duten lanpostuetarako zein den hizkuntz eskakizuna; hau da, zer euskara maila behar den.

Hizkuntz gaitasunaren mailak zehaztuko du hizkuntz eskakizuna, hots: lanpostua betetzeko eta lanbidean jarduteko eskatuko den maila hizkuntz trebetasunetan (ulertu, mintzatu, irakurri eta idaztea).

3._Irizpide orokorrak zehaztea, haietan oinarrituta ezarriko baitira jarduketa planak bilatzen diren derrigorrezkotasun eta hizkuntz eskakizunak betetzeko.

Ahalik eta lasaiena bateratu gogo dira arlo honetan topo egiten duten bi eskubide motak:

a) herritarren hizkuntz eskubideak, Euskarari buruzko Foru Legeak eta Udal Ordenantzak aitortuak.

b) euskaraz jakin behararen baldintzapean jarritako lanpostuetan ari direnen eskubideak:

"Euskaraz jakin beharreko baldintza ezartzen zaien lanpostuetan ari direnei, lortutako eskubideak errespetatuko zaizkie. Betiere, antolatuko den prestakuntzan parte hartzeko aukera emanen zaie, hala nahi badute (otsailaren 10eko 29/2003 Dekretuaren 18.4 artikulua).

Zein lanpostutan jakin beharko den euskaraz eta lanpostu bakoitzari zein hizkuntz eskakizun dagokion erabaki baino lehen, eskakizun horiek zehaztuko ditugu.

Hizkuntz eskakizunen definizioa

Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Foru Dekretuak honela dio 18. artikuluko 1. puntuan: Nafarroako administrazio publikoek, ebazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da.

Hizkuntz eskakizunen bidez zehazten da lanpostu bakoitzari dagokion euskara maila, eginkizunekin bat etor dadin.

_Lehen hizkuntz eskakizuna:

Hizkuntz gaitasun apalekoa da lehen hizkuntz eskakizuna trebetasun guztietan.

Hizkuntz eskakizun honetako lanpostuaren titularra gai izanen da testuaren mezu nagusia ulertu eta adierazteko, idatziz nahiz ahoz, ñabardurei antzeman ez arren.

Bestetik, elkarrizketa batean modu oinarritzkoan parte hartzeko gauza izanen da, eta oinarritzko gaitasuna izanen du, ahoz nahiz idatzita, lanean ohikoen dituen hizkuntz jarduereri erantzuteko adinakoa. Hortaz, bisitariak toki eta pertsona egokiengana igortzen jakinen du, baita informazio erraza ematen eta eskatzen, mezu laburrak ulertzen eta idazten ...

Ahoz nahiz idatziz komunikatzen ahalko da modu erraz batean, nahi akatsak egin.

_Bigarren hizkuntz eskakizuna:

Hizkuntz eskakizun honetako lanpostuaren titularra gauza izanen da informazioa eskatu eta emateko edozein komunikabidetan, nahiz eta aurrez aurreko elkarrizketan hobekien moldatu. Orobat, bisitariekin hitz egiteko, telefonoz erantzuteko, euskara ama-hizkuntza dutenek adierazitakoaren ideia nagusia ulertzeko, bileretan esandakoa ulertzeko, lanean ohikoak dituen gaien inguruko oinarritzko informazioa atzemateko eta gutunak ulertzeko gauza izanen da. Zailtasuna izanen du zenbait ñabardurari antzeman eta haiek adierazteko.

_Hirugarren hizkuntz eskakizuna:

Hizkuntz eskakizun honetako lanpostuaren titularrak lana eta herritarrekiko harremana euskaraz egiteko adinako hizkuntz gaitasuna izanen du, ahoz nahiz idatzita.

_Kreditazioa:

29/2003 Foru Dekretuak honako hau dio 20. artikulua 1. puntuan: Maila guztietako lanpostuetan, baldin eta euskaraz jakitea lanpostuan aritzeko nahitaezkoa edo merezimendu kualifikatua bada, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Gaitasun Agiriaren bidez edo ofizialki baliokidea den titulazio baten bidez egiaztatu ahalko da jakitea, edo, bestela, izangaiak plantilla organikoan edo deialdian eskatutako hizkuntza maila baduen ala ez zehazteko proba gaundituz. Euskaraz jakitea baldintza duten plantilla organikoko lanpostuak eta haien hizkuntz eskakizuna.

Zein lanpostutan uste dugun euskaraz jakin behar dela aztertuko dugu. Kontuan hartuko dugu zirkuitu elebidunak sortu behar direla; izan ere, Burlatako Udalak euskaraz erantzutea nahi duen pertsonak norbait beharko du departamentu bakoitzean euskaraz aritzeko. Beraz, herritarrenganako zerbitzua eta Legeak aitortzen dizkion hizkuntz eskubideak babestea da proposamen honen ardatzak.

_Zerbitzu orokorrak:

.Administrari-ofiziala (1) (Idazkaritzari atxikia, 2.2 plantilla organikoan).

Uste dugu atal honetako lanpostu batek euskararen baldintza bete behar duela Idazkaritzari atxikitako atala delako eta, horrenbestez, administrazio prozesu frankoren muinean dagoelako, bertara edozein dokumentazio iristen baita, euskarazkoa ere bai.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Administraria (1) (Erroldari atxikia, 2.4 plantilla organikoan).

Gure ustez, Mandatariekin eta Diruzaintzarekin batera, herritar gehien hartzen dituen ataletako bat da, eta horregatik lanpostua betetzeko euskaraz jakin behar da.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Administrari-ofiziala (1) (zenbait batzorderi atxikia, 2.7 plantilla organikoan).

Garrantzitsua da lanpostu honetan euskaraz jakitea, balio anitzetako delako, batzorde baten baino gehiagoren ardura duelako; Hezkuntzako, besteak beste, non euskarazko eredu eskola batzuk dauden.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Mandatariak (2) (2.9 eta 2.10 plantilla organikoan).

Herritarren telefono deiak hartu eta bulego orokorretan sartzen direnei hasierako informazioa ematea ditu eginkizun. Lanpostu hauetan Udalaren lehen irudia hartzen dute burlatarrek, hurbiltzen diren guztiak bertatik igarotzen baitira. Horregatik ezinbestekoa iruditzen zaigu hiru mandatarietatik bik euskaraz jakin behar izatea.

Hizkuntz eskakizuna: bigarren maila.

_Zerbitzu ekonomikoak:

.Administraria (1) (Katastroari atxikia, 3.4 plantilla organikoan).

Ezinbestekoa dirudi Katastroaren atalean euskaraz erantzun dezakeen pertsona bat egotea, hala nahi duenari

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Administraria (1) (Diruzaintzari atxikia, 3.7 plantilla organikoan).

Herritarrekin dituen harremanen handiagatik ongi dago euskaraz jakitea.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

_Hirigintza Zerbitzua:

.Administrari-ofiziala (1) (4.1 plantilla organikoan).

Komenigarria dirudi gaur egun dauden departamentua osatzen duten bi administrari-ofizialetako batek euskaraz jakin behar izatea.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

_Herri Lan Zerbitzua:

.Administrari-ofiziala (1) (5.1 plantilla organikoan).

Ona iruditzen zaigu lanpostu honetan euskaraz jakin behar izatea, herri lan departamentuari dagozkion ohar edo kexekin datozen herritarrak hartzen dituen gero.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Eskolazaina (2) (Ermitaberri eskola publikoari atxikiak, 5.26 plantilla organikoan).

Ez dago zalantzarik eskolan euskaraz ikasten duten hurrekin egon behar duenak hizkuntza hori jakin behar duela.

Hizkuntz eskakizuna: bigarren maila.

_Gizarte Zerbitzuak:

.Gizarte langileak (2) (6.3 eta 6.6 plantilla organikoan).

Bi gizarte langilek euskaraz jakin behar izatea proposatzen dugu, erabat ez bada ere, eskaeraren parte bati euskaraz erantzun diezaioten.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Gizarte hezitzailea (1) (6.7 plantilla organikoan).

Euskaraz jakin behar izatea proposatzen dugu Haurtzaroa eta Gaztaroa programaren arduradunarentzat, sektore horretan euskarak toki franko baitu.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Familia langilea (2) (6.10 eta 6.11 plantilla organikoan).

Euskaraz jakin behar izatea proposatzen da euskaldunez arduratuko liratekeen bi familia langilerentzat, hain da garrantzitsua ama hizkuntza eta familiakoa hirugarren adinekoentzat.

Hizkuntz eskakizuna: bigarren maila.

.Mandataria (1) (6.14 plantilla organikoan).

Jakin behar duela uste dugu, berak duelako lehen harremana herritarrekin eta bere eginkizuna delako jendeari informazioa ematea eta Gizarte Zerbitzuen departamentuetara igortzea.

Hizkuntz eskakizuna: bigarren maila.

_Euskara Zerbitzua:

.Euskara teknikaria (1) (7.0 plantilla organikoan).

Begi bistakoa da euskaraz jakitera zergatik dagoen behartua adierazi behar ez izatea.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

_Ludoteka:

.Ludotekarioak (2) (8.1 eta 8.2 plantilla organikoan).

Ezinbestekotzat jotzen dugu bi ludotekario lanpostuak behartuak egotea, bestela ezinezkoa litzatekeelako edozein programa aplikatzea D ereduko hurrei Udalak dituen baliabideekin, eta kanpotik kontratatu beharko genuke beti. Nor arduratuko litzateke hurrez egun bat hautatuko bagenu ludotekan euskaraz aritzeko? Eta horrela ez balitz, ezinbestekoa da eskolan hurren % 35 euskaraz matrikulatuta daudenean. Ez al da ludoteka, josteta eta hezkuntza aldetik, eskolaren jarduera osagarri bat?

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

_Haurrentzako liburutegia:

.Arduraduna (1) (9.1 plantilla organikoan).

Haurrak izanik liburutegi honen erabiltzaileak eta haietako kopuru koskor bat, esan dugun moduan, euskaraz matrikulatuta egonik, (liburutegiak antolatzen dituen kanpainez gain) ezinbestekoa dirudi bi lanpostuetan euskaraz jakin beharra.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

_Udaltzaingoa:

.Kaboak (2) (11.2 eta 11.5 plantilla organikoan).

.Agenteak (5) (11.9, 11.20, 11.22, 11.36 eta 11.37).

Udaltzainak bi lan mota ditu, bereziki: kaleko lana eta bulegokoa. Bietan du harreman zuzena herritarrekin. Proposatutakoa kopurua egokia iruditzen zaigu herritarrei euskaraz erantzuteko gutxieneko moduan.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

_Kultur Patronatua:

.Administrari-ofiziala (1) (12.1 plantilla organikoan).

Administrari-ofizial batek jakin behar izatea proposatzen da, patronatuko bulegoetan jendea euskaraz hartzea bermatzeko.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Zerbitzu anitzetako enplegatua (1) (12.4 plantilla organikoan).

Jakin behar izatea proposatzen da bere eginkizunetako bat Kultura Etxeko erabiltzailetak atezaintzan hartzea delako eta, hortaz, gelak nola erabili etab. erakutsi behar dielako.

Hizkuntz eskakizuna: bigarren maila.

_Kirol Patronatua.

.Administrari laguntzailea (1) (13.3 plantilla organikoan).

Administrari laguntzaile batek jakin behar izatea proposatzen da, patronatuko bulegoetan jendea euskaraz hartzea bermatzeko.

Hizkuntz eskakizuna: hirugarren maila.

.Zerbitzu anitzeako peoia (3) (13.16, 13.17 eta 13.18 plantilla organikoan).

Zerbitzu anitzetako hiru peoiri buruz ari gara igerilekuetan lan egiteko, bertan burlatar asko biltzen baita. Kopuru horrekin txanda guztietan egonen litzateke haietako bat.

Hizkuntz eskakizuna: bigarren maila.

Printzipio orokorrak

Honako printzipio orokorrak proposatzen dira:

_Lan eskaintza publikora ateratzea jakin behar izatea duten lanpostuak, betiere hutsik babaude.

_Proposatzen diren jarduketekiko borondatezko atxikipena.

_Haien izaera positibo eta pizgarria.

_Administrazio Publikoen zerbitzuan ari diren langileek eskuraturiko eskubideak errespetatzea.

_Lehentasuna ematea eskuragarriago eta hurbilago dauden xedeei.

_Ekintza bereziak planteatzea, halako printzipio hauetaz jardutean, babestu nahi diren hizkuntz eskubideak nabarmenki kaltetzen dituzten egoerak gertatzen direnean, hori guztia aipatu eskubideak bermatzearen.

_Jarduketa Plan honetarako proposatzen diren irizpideak.

1._Euskaraz jakin behar izatea nahitaezko baldintza duten lanpostuak hutsik baldin badaude, Lan Eskaintza Publikoan sartuko dira.

2._Jakin behar izate hori bete gabe lanpostu horietan langile finkoak ari baldin badira:

_Aukera emanen zaie euskarazko irakaskuntza programetan parte hartzeko, betiere borondatezkoa izanik.

_Erdarazko lanpostu hori iraungitzeko edota moldatzeko dela deklaratu daiteke.

3._Nolanahi ere, euskaraz jakin behar izate hori nahitaezko baldintza duen lanpostua

hutsik gelditzen denean, lan eskaintzaren barrenera sartuko da.

4._Euskaraz jakin behar izatea nahitaezko baldintza duten lanpostuetan ari direnei lanerako ezintasunak, nolahaniko eszedentziak, etab. gertatzen zaienean, lanpostu horretarako nahitaezko baldintza eta hizkuntza profila betetzen dituzten langileekin egingen dira ordezkapenak.

__ __ L0522175 __

N.A.O. | Aurkibidea